

SALBUESPENAK

Indarreko legerian jasota agertu behar duten arrazoiengatik modulu edo arlo bat egitetik liberatzea da.

LANTOKIKO PRESTAKUNTZA (LP)

LPko modulutik salbuestea eskatu ahal izango da, betiere Lanbide Heziketako ikasketa horiei lotua **urtebeteko** denbora osoko lan-esperientzia egiaztatzen bada.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- [LPren salbuespena eskatzeko inprimakia](#) beteta.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, kontratazio-aldia jasotzen duena.
- Enpresaren ziurtagiria, garatutako jarduera berariaz jasotzen duena.

Heziketa-zikloren bat **modalitate dualean** egiten eta amaitzen duten ikasleak Lantokiko Prestakuntzako modulutik **salbuetsita** daude.

INGELES TEKNIKOA

Ingeleseko modulutik salbuestea eskatu ahal izango dute:

- Entzuteko ezgaitasuna duten ikasleak
- 21 urtetik gorakoak, baldin eta gutxienez 3 urteko lan-esperientzia egiaztatzen badute eta gutxienez heziketa-zikloaren iraupenaren erdia osatzen badute.
- Heziketa-zikloan lehen aldiz matrikulatzen diren urte naturalean gutxienez 45 urte beteta dituztenak.

[Hezkuntza Ikuskaritza](#)